

Donostian, 1999ko apirilaren 23an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
P. Ondarra,
B. Oihartzabal,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi eta
A. Urrutia
euskaltzainak eta
J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea
(lehenengo gaietan salbu),
J. J. Zearreta, ekonomia eragilea
(4. gailan) eta
A. Eguzkitza, Exonomastika batzordekidea
(1.4 gailan)

Petatxu sarrerari “Ipar.” oharra ezartzea ez du onartzen ohargileak. Sarrera hori aldatzea onartu da. *Ipar.* marka kenduko zaio hitz horri eta baita *petatxatu*-ri ere. *Pedaxu*-ren sarrera ere aldatzea onartu da: *Pedaxu*, e. **petatxu**. *Pedaxatu* eta *pedaxatzaile* sarrerak, berriz, ezabatu egingo dira. *Petatxatzaile* erantsiko zaio, gainera, eta *petatxu*-ren sarreran ‘adabakia’ azalpena emango da.

Ondoren, H. Knörrren oharrak hartu dira eztabaidagai.

Paso sarreran bigarren adiera bat ematen da zerrendan *Ipar.* marka duela. Knörr jaunak zerbait eranstea eskatzen du. Hala onartu da: iz. kategoria eta ‘zartakoa’ adiera duela gehituko zaio.

Patar hitza Iparraldekoa ez ezik Nafarroakoa ere badela dio ohargileak. Hala dela ziurtatu ondoren, *Naf.* marka ezartzea onartu da.

Donostiako ordezkartizan bildu da Euskaltzaindia 1999ko apirilaren 23an. Bileran goizeko hamarrak eta laurdenetan hasi da. Ezkerreko zutabeetan biltzen dira batzarrean parte hartu duten euskaltzainen izenak. Ezin etorria adierazi du P. Salaburu jaunak.

Aurreko batzar-agiriak onartzea

Inoren oharrak gabe onartu dira aurreko hileko bi agiriak, hileroko batzarrekoa eta barne-jardunaldien jarraipenekoak.

Hizkuntza arauak

*Hiztegi Batuko **paso-pikaldi** hitz zerrenda*

Zerrenda hau amaitzeke utzi zen aurreko batzarrean. Gaurkoan X. Kintana jaunaren oharren azterketarekin jarraitu da.

Personal sarrera dela eta, zerrendan 2. adiera ematen da, izen kategoriakoa eta “Iparraldeko galdetzeko” oharrarekin. Kintana jaunak nazioartekoa dela dio eta sartzea proposatzen du. Batzordearen proposamenez, bigarren itzulirako utzi da.

Patroi hitza erlijioaren esparrura mugatzea eskatzen du Knörr jaunak. Batzordearen iritzia, hain zuzen, kontrakoa da: gaur hitz hori itsas girokoa da, batik bat. Erlijio arloan, berriz, *zaindari* erabiltzen da. Horrenbestez, ez da oharra onartu.

Pausatu-ren adierak argitzeko asmotan ohargileak sartzea proposatzen duen adibideak ez dira onartu. Nahasgarri izango litzateke.

Pauso-ren sarreran, adibide gisa, "lau pauso bidean" eransteke proposamena ez da ontzat eman, dokumentaturik ez dagoelako eta premia berezirik ikusten ez delako. Arrazo beragatik, hurrengo itzulirako utzi da *pazifismo* hitza.

Pazko hitza letra larriz hobeto ikusten du ohargileak, *Eguberri* eta bezala. Ez da onartu, izen arrunta ere bai baita: "pazkoak egin" esaten da, adibidez.

Peitu izan-i buruz, aditz honek zernolako kasua gobernatzeko duen esatea onartu da. *Gauza baten peitu naiz* erantsiko zaio, adibide gisa.

Bide batez, *peita* hitzari ere leku egingo zaio zerrendan: *peita**, e. **beita**.

Pella hitza hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Penalti sarrerari ohargileak "e. zigor" ezartzea eskatzen du. Ez da onartu, berez ez baita zigorra.

Pentsio eta *zaharsari* baliokidetzat ematea ez da onartu, *zaharsaria* pentsio mota bat izango bailitzateke.

Pentsu dut bezalakoei leku egitea ez da onartu, hurrengorako utzi da. *Aipu dut* eta horrelakoak ere ez baitira sartu zerrendan.

Pentze hitza, ohargilearen arabera, Nafarroan ere erabiltzen omen da. Oharra onartu da eta, horrenbestez, *Ipar*. marka ezabatu egingo da. Bestalde, zerrendan ageri den 'ze-laia' adiera ere ezabaturik geldituko da.

Peril hitza, *Ipar*. ez ezik Gipuzkoako testuetan ere ageri da (Agirre Asteasuokoa darabil). Marka hori ezabatzea onartu da. Horren ordez, *Zah*. marka erantsiko zaio. *Perilos* hitza, berriz, zerrendatik ezabatuko da.

Perlesiatu hitza sartzeko eskaria onartu da: **perlesiatu** *Ipar*. 'elbarria'.

Peto-ren sarrera osatzea onartu da. Lehen adierari dagokionez, honela utzi da: 'berdina, erabatekoa' *Aitaren petoa da semea*; *euskaldun petoa*; *azkoitiar petoa*. *Peto egin* eta *peto egon* eta horrelakoez ere mintzatu dira euskaltzainak baina ez dira onartu zerrendan.

Pezakatu ez da onartu, dokumentatu gabea delako. *Pezoi*-ren esanahi zehatza, ohargilearen ustearen kontra, ez litzateke 'ezponda' izango. Beraz, zerrenda lehengoan gelditu da. *Piano-jole* ere ez da sartuko: *piano-jotzaile* modukoak dira onartuak, sistema orokorraren arabera.

Hirugarren ohargilea Andres Urrutia jauna izan da.

Paso hitza jadanik ikusia da.

Pasteurizatu/pasteurizazio hitzak hurrengorako uztekoak direla uste du batzordeak eta hala onartu da. *Patata*-ren sarreran *patata(-)zomorro* bezalakoak ageri direnez, ohar-

gileak uste du badela garaia marratxoari buruzko bi aukera horien artean baten aldeko joera erakusteko. Gauzak dauden daudenean uztea erabaki da.

Patetiko eta *patriarkal/patriarkatu* hitzak bigarren itzulirako uztea erabaki da. *Pazientziatsu* ere bigarren itzulirako uztea erabaki da. Axularrengan bakarrik omen dago dokumentatua corpusean.

Pegartxo zerrendatik kendua izan dela eta, arrazoiak galde egiten du ohargileak. Horrelako hitzak automatikoak diren neurrian ez da beharrezko ikusten zerrendan ematea.

Pelikula sarreran ohargilearen eskaria ontzat eman da. Honela geldituko da: **pelikula** h. **film**.

Behin *pentzudan* onartuz gero, *pentzuda* izena ere agerraraztea eskatzen du ohargileak. Gauzak dauden bezala uztetari hobeto iritzi diote euskaltzainek, adibiderik gehienak *pentzudan* formarenak baitira.

Peza-ren azpisarrera gisa, *pezako* sartzea onartu da. Adiera emango da: ‘zati bakarrekoa’ eta, adibide modura, *Pezako galtzak*.

Pertsonaia hitzak zalantzak sortzen dizkio ohargileari *-aia/-aje* dela eta. Batzordearen iritziz, *-aje* amaiera izango litzateke arauzkoa. *-aia* salbuespena litzateke. *Pertsonaia* forma salbuespenetakoa da, hortaz.

Pigmentazio-ren parean *pigmentatu* sartzeko eskaria ez da onartu. Bigarren itzulian sartzekotzat eman da.

Pijo hitzarentzat azalpena ematea eskatzen du Urrutia jaunak. Onartu da: ‘trebea, behar bezalakoa’, *Andre prestu eta pijoa*; *Bautista Bazterretxe, mutiko pijoa*.

Pikada hitza sartzea ez da onartu. Bigarren itzulirako utzi da.

Idatzizko ohar hauetatik kanpo, P. Goenagak *periodo* hitza sartzea komeniko litzatekeela aipatu du. Hala onartu da, ‘batez ere Fis.’ oharrak hornitua. Eta hariari tiraka, *periodiko* sarrera ere osatu beharra ikusi da. Bigarren adiera bat jasotzea onartu da. Honela gelditu da sarrera hori: **periodiko** 1. izond. ‘aldizkakoa’ *sistema periodikoa*. 2. iz. Heg. h. **egunkari**.

Honenbestez, *paso-pikaldi* zerrenda onartutzat eman da.

Hiztegi Batuko pikante-postu zerrenda onartzea

Lehenbizi aztertu diren oharrak X. Kintanarenak izan dira.

Pikutara {*bidali, bota, joan*} eta antzekoez, ohargileak *piku* hitzetik aparte ematea eskatzen du, erlazio hori aski badaezpadakoa delakoan. Onartu da. Beraz, *pikutara* hizari sarrera berezia eskainiko zaio.

Pipita sarrera *aho legarra* hitzarekin harremanetan jartzen da zerrendan. Baina hitz hau bere lekuan ez da agertzen eta agerraraztea eskatzen du ohargileak. Onartu da.

Zerrendan *polen* hitzaren baliokide gisa ematen den *lore hauts* ez du bidezko jotzen Kintanak. Zerrenda datorren bezala uztea erabaki da.

Polizia hitza 'kidegoa' adierazteko eta 'kidego horretako kide bakoitza' adierazteko erabiltzeari ez deritza zuzen ohargileak. Eztabaida piztu da eta batzordearen proposamenez, bi hitz bereiztea onartu da: batetik, *polizia* eta bestetik, *poliziakide*. *Polizia* hitzari ere zenbait azalpen gehitzea onartu da. Honela gelditu da, azkenean: **polizia** 1. Kidegoa; 2. Garbitasuna, ardura; 3. h. **poliziako**, **poliziakide**.

H. Knörren oharrak aztertzeari ekin dio ondoren batzarrak.

Pikante hitza mailaz jaitsi nahi luke ohargileak. Dagoen bezala uztearen aldeko da, ordea, batzordea eta hala onartu da.

Pike hitzean azpisarrera bat eranstea proposatzen da ondoren. Onartu da eta honela gelditu da delako sarrera hori: **pike-1** 'oihal-mota'; pike-2* e. **bike**; pike-3* e. **piko-2**.

Pikosto hurrengo itzulirako utzi da, *pilikorte(an)* bezala, datu aski ez baita.

Pil-pilean-en adiera figuratua sartzeko proposamena egiten du ohargileak. Erabilera metaforikoa beti izango litzateke zilegi. Horrenbestez, ez da beharrezko ikusi sartzea.

Pintatzaile/pintore bikotearen aurrean bietako bati lehenasuna ematea eskatzen du Knörr jaunak. Daudenetan uztea erabaki da.

Pirata-ri aldamenean *itsaslapur* sartu beharrik ez da ikusi.

Pirka-pirka eta *pirpir* hurrengorako uztea onartu da, lekukotasun faltaz.

Pisu-ren adiera figuratua ere sartzeko eskaria ez da onartu. Izenondo gisa jasoa denez, ez da gehiagoren beharrik ikusi.

Pizkor aipatzea onartu da: pizkor* e. **bizkor**.

Planta hitza "herr." gisa markatzea eskatzen du ohargileak. Dagoen bezala uztea egokiago ikusi dute euskaltzainek. *Plantatu* sartzeko eskaria, berriz, ez da onartu. Hurrengo itzulirako izango litzateke.

Plazent hitza zerrendan zaharkituztat ematen da. Zalantzan jartzen du hori ohargileak. Iparraldekoiei entzun ondoren, honela markatua emango da: *Ipar*. izond. 'atsegina'. *Plazentki* hitzari ere "zah." marka kendu egungo zaio.

Pleini sarreraren argitasunen bat eskatzen du Knörr jaunak. Honela ezartzea onartu da: **pleini izan-1** *Ipar*. da ad. 'kexatu', *zertaz pleini zara? 2 du ad.*, *pleini dut honen langilea*. *Pleinitu*-ri, berriz, 'pleini izan' adiera duela erantsiko zaio eta baita honako adibide hau ere: *flakaturik zirela pleinitzen ziren*.

Hirugarren ohargilea Tx. Peillen izan da.

Pikarrai hitza sartzea onartu da honako azalpen hauekin: *Zub*. 'bilusik'. *Pikarrai ezarri zuten*.

Ike hitza sartzea ez da onartu.

Piko sarreraren adiera gehiago ezartzea onartu da. Honela emango dira adiera horiek denak: **piko-1** *Ipar*. iz. 'goldearen hortza'. **Piko-2** izond. 'aldapatsua'. **Piko-3** 'dantzako urratsa'. **Piko-4** 'bertsogintzako neurria'. Piko-5* e. **piku**.

Hurrengo itzulirako utziko da *pildun* hitza.

Pintada, hegazti mota, sartzea onartu da.

Pintatu-ren ondoan *tindatu* (L.N.) aipatzen du ohargileak. T- letran ikusiko da, non-lanahi ere.

Piper-en sarreran, azpisarrera gisa, *piper igorri* eta *piper utzi* sartzea proposatzen da. Hurrengo itzulirako utzi da.

Pipita-ren bigarren adiera (*clitorisa*, nonbait), bigarren itzulirako izango litzateke, izatekotan.

Piru sarrera hornituago emango da: 'haria; izpia; zuntza' adierak eskainiz.

Pisatze, *pisuhil*, *pitotx* eta *pittika* hurrengo itzulirako utzi dira.

Pistoi sartuko da.

Pitxi ez da ohargilearen aburuz 'balio gutxiko bitxia'. Dagoenetan uztea erabaki da.

Pixa hitzaren azpisarrera zenbait eskatzen dira oharrean. Batzordearen ustez, *germu* da maila jasoagokoa. Honi dagokion lekuan, *germu(-)debeku* hitza ere sartua dago. Aski litzateke, hortaz, *pixaezin*, *pixadebeku* eta antzekorik gabe ere. *Pixontzi* sarreran, iz. eta izond. kategoriakoa izan daitekeela adieraziko da.

Hurrengo itzulirako utzi dira, halaber, honako proposamen hauek: *pizle*, *pizte*, *planisferio*, *plantigrado*, *plasmodio*, *plateresko*, *plazebo*, *plektro*, *pleonasma*, *plexu*, *plurralismo*, *polistireno*, *politizatze*, *pomada*, *pomelo*, *porrokin*, *postale* eta *poster*.

Peillen jaunak *platondar* baino nahiago du *platoniar* edo *platonzale*. *Platondar* utzi da, hau baita dokumentatua dagoena.

Plebeio sartzea onartu da. *Poliester* ere bai.

Poker-2 Ipar. 'korrokada' agertzen da zerrendan. Hau orokorregia iruditzen zaio ohargileari, baina gogorarazi zaio ohar horrek ez duela esan nahi Iparralde osoan erabiltzen denik. Dagoenetan utzi da, horrenbestez, sarrera hori.

Poliza sarreran 'agiria' marka ezarriko da.

Pope sartzea onartu da, baina ez *porogatu* hitza.

Azkenik, A. Urrutiaren oharrak aztertu dira. Dena dela, oker batengatik batzordeak ez omen ditu eztabaidatu *piroteknia-plagiatu* bitarteko oharrak. Horrenbestez, eta daturik ezean, hurrengo batzarrean eztabaidatuko dira A. Urrutiaren izkribuko bigarren orrialdean jasotzen diren oharrak.

Pikardia sarreran adiera jasotzea eskatzen da. Ez da onartu, dagoena nahikoa dela eta. Gauza bera gertatu da *pikaro* hitzari buruzko eskaerarekin ere.

Aurreko zerrendan ageri zen *pikardatu* hitza oraingoan zergatik desagertu den galde egiten du ohargileak. Axularrek behin erabilia dela erantzun zaio eta zaharkituzat jo zutelako kendu zutela zerrendatik.

Pikete hitza ere zerrenda honetan ez omen da ageri, aurrekoan bazetorren ere. Horren arrazoia galdetzen du Urrutiak. Erabilerak ikusita, hurrengorako uztea hobe delakoan dago batzordea. Hala onartu da.

Pilarri hitzaren daturik ez omen du batzordeak. Izatekotan, hurrengorako utzi beharko litzateke.

Pinakoteka sartzea onartu da.

Piorrea bigarren itzulirako utzi da.

Plan eta *plangintza*, biak ageri direnez zerrendan, *planifikatu*-ri leku egin behar ote zaion ala *plangintza* egin erabili behar ote den galde egiten da oharretan. Bigarren itzulirako uzteari hobeki irizten dio batzordeak eta euskaltzainak bat etorri dira iritzi horrekin.

Planetario izena sartzea onartu da.

Ohargilearen ustez, *plantilla* zerrendatik “erori” egin bada ere, berreskuratu beharrekoa da. *-il-* grafiaren inguruan ere Euskaltzaindiak argitasunak eman beharko litzuzke. Bigarren itzulirako uztea erabaki da, ez baitu gutxienekoa ere betetzen. *Langile zerrenda* eta *barne(-)zola* (zapatena) ere, adibidez, hor dira. Hurrengorako ekar daiteke proposamenen bat honi buruz.

Plazenki sarreran azalpenen bat eskatzen du Urrutia jaunak. ‘Atseginez’ adiera duela esango da.

Plebe sartzea onartu da.

Hurrengo itzulirako utzi da, ordea *pleit*, erabilera urri xamarra baitu. *Popularr/popularitasun* ere bigarren itzulirako utzi dira. Baita *postal* eta *postmoderno* ere. *Poster* hitza, berriz, jadanik bigarren itzulirako uztea erabakia da.

Poloniar/poloniera gero sartuko dira, horrelakoak sistematikoki sartuko baitira argitalpen osoa egin aurretik.

Posta sarreran onartu da *posta(-)kode* sartzea, baina proposatzen diren gainerakoak —*posta(-)truke* eta *postan* adizlaguna— bigarren itzulirako utzi dira.

Postposizio hitzak erakusten duen *t* letrarekin ez da ados ohargilea. Hiru kontsonante elkarren segidan ageri direnean, bitarteko *t* hori galdu beharko litzatekeela dio. Batzordearen erantzuna da mailegua dela eta nazioarteko forma horixe dela, *subjektu*, *objektu* eta *adjektibo* ere horrela onartu direla. Ontzat eman da batzordearen iritzia.

Onomastika

B. Hurch-en txostenari egindako oharren aurkezpena

Hurch jaunak Euskaltzaindiaren 53. araua dela eta (*Munduko Estatuetakoko Hizkuntza Ofizialak*) euskaltzainei aspaldi helarazitako txostenari zenbait ohar egin zaizkio Exonomastika lantaldetik eta ohar horien aurkezpena egin du A. Eguzkitza jaunak. Oharrok datorren batzarrean aztertuko dira.

“Europar Batasuna dela eta” txostenaren aurkezpena

Exonomastika lantaldeak beste txosten bat aurkeztu du, X. Kintanaren eskutik. Euskaltzaindiak Munduko estatuen euskal izenak arautu dituen bezala, sortzen ari den Europako batasun delako horri ere izen bat zor zaiola eta *Europar Batasuna* proposatzen

da, nahiz hiru boto *Europako Batasuna* izenera makurtu. Proposamen hau hurrengo batzarrean eztabaidatu eta bozkatuko da. Nolanahi ere, beti bezala, oharrak, idatziz, hilaren 20rako behar dira Euskaltzaindian.

Erregelak

Jagon Sailean ezarri nahi diren aldaketak direla medio, Erregelaren 37. artikulua aldatu beharra ikusi zen. Aldaketa xumea proposatzen da baina eztabaida pixka bat ekarri du. Azkenean, aho batez onartu da: 37. art. “Jagon Saila batzorde bakarrak edo, beharren arabera, batzorde gehiagok osatua egon daiteke” da onartu den testua. Dena dela, erregelaren testu osoaren azken idazketaz P. Goenaga, H. Knörr eta A. Urrutia arduratuko dira. Hauek izan baitira oharrak egin dituztenak. Prestatutako testu bateratua hurrengo bilkuran izango dute euskaltzainek eskuetan.

Arautegiko 5. eta 28. artikulua

5. artikulua aldaketa bozkatu da. Honako emaitza izan da: hamazazpi, alde; bat, zuri eta beste bat, ezezkoa, hau (Arana jaunarena), gramatikazko arrazoiengatik, ez baitu gustuko hainbeste ergatibo marka segidan ematea.

Hona hemen onartu den testua:

“5. art. Euskaltzaindiak Zuzendaritza bat izango du, honako kide hauek osatua: euskaltzainburuak, buruordeak, idazkariak, diruzainak, Iker sailburuak eta Jagon sailburuak. Denek euskaltzain oso beharko dute izan. Iker sailburua nahiz Jagon sailburua euskaltzainburuorde ere izan daitezke aldi berean.”

28. artikulua aldaketa proposamenak ere zenbait eztabaida sortu du. Hurrengo bileran erabakitzeke geratu da.

Eskuartekoak

Informatizatzea bideratzeko mailegua

J. J. Zearretak azaldu du zertan den kontua. Euskaltzaindiak onartua duen informatizatze plana finantzatu behar da: alde batetik, Herri Aginteek ez dute emango aurrekontuaren ehuneko 57 baino. Bestetik, dirutza hori hiru urtetan banatua etorriko da. Informatizatzea pare bat urtetan egingo denez, argi dago, finantzatze formularen bat bilatu behar dela.

Argitasun hauek eman ondoren, honako erabaki hau hartu da:

Bilbao Bizkaia Kutxarekin kreditu kontu bat hitzartzea eta sinatzea, **BERROGEITA HAMAR MILIOI PEZETAKOA (HIRUREHUN MILA ETA BOSTEHUN ETA SEI EURO ETA BOST ZENTIMO)**, hiru urteko epean eta Instituzioaren onurakotzat jotzen diren interes eta baldintzetan.

Halaber, Erakundearen Diruzain den Jose Antonio Arana Martijari ahala ematea, Euskaltzaindiaren ordezkari legez eta haren izenean, erabakia guztiz betetzeko behar diren dokumentu oro, publiko zein pribatu, sinatzeko.

Institut d'Estudis Catalans-en eta Universitat de Perpinyà-ren arteko hitzarmena

Institut d'Estudis Catalans-en eta Universitat de Perpinyà-ren artean egin duten hitzarmenaren testua eman zaie euskaltzainei bere jakinerako.

Eusko Ikaskuntzaren eta Euskadiko Kutzaren Giza, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Sarirako proposamena

Eusko Ikaskuntzaren eta Euskadiko Kutzaren Giza, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Sarirako Pedro Yrizarren hautagaitzaren aldeko proposamena aurkeztu du Zuzendaritzak. Euskaltzainek aho batez onartu dute proposamena.

Etxarri-Aranazko bilkura

Ospakizun horietako xehetasunak aurkeztu ditu J. L. Lizundia jaunak. Euskaltzain osoen bilkura ostegun arratsaldean izango litzateke, ekainaren 24an. Gramatika Jardunaldiak, berriz, hilaren 25ean izango dira, goiz eta arratsalde. Jendaurreko ekitaldia noiz egin izango litzateke arazoa, hogeita lauan ala hogeita bostean. Arbizuko jaiak direnez, agian ez omen litzateke osteguna egokiegia izango. Dena dela, A. Iñigo saiatuko da iritziak jasotzen eta horren arabera zehaztuko da agenda.

Urkixo eta Azkueren omenezko Kongresua

Bi milagarren urtean egingo bada, gauzak finkatzen hasi beharra dagoela adierazi du Lizundia jaunak. *Euskalduna* jauregian egin nahi bada, are presa handiagoa legoke. Dena dela, lehenbizi gaia finkatu beharra ikusten da eta dena abian jartzeko batzorde bat ere beharrezkoa da. Euskaltzainburuak adierazi du lehenbizi batzorde akademiko bat izendatu behar dela eta honek finkatuko dituela gaiak. Batzorde hau, hasteko, zuzendaritzako kideek eta ikersailburuak osatuko lukete. Gero, gaia finkatu ondoren, osatuko litzateke kanpoko zenbait jende prestigiodunekin.

Noiz egin ere finkatu behar da. Datarik egokiena 2.000. urtearen amaiera aldea izan liteke.

Euskaltzainburuaren dossiera Frantziako agintarientzat

Haritschelhar jaunak adierazi du dossier bat egin duela euskararen egoeraz eta Frantziako agintarien esku jarri duela.

Bilera arratsaldeko bostak eta erdietan amaitu da.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *